

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. APARTAMENTUAK. 2019KO IRAILA

Euskal AEko apartamentu turistikoetako gualdiak %7,6 gehitu ziren 2019ko irailean

Udako hiru hilabeteetako –uztaileko, abuztuko eta iraileko– turisten balantzea %2,6ko hazkundearekin itxi da

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko apartamentu turistikoetako gualdiak 2019ko irailean 29.319 izan ziren, 2018ko irailaren aldean %7,6ko gehikuntza dena. Gualdiek gora egin dute hiru lurraldeetan: %16,6 Gipuzkoan, %5,4 Araban eta %1,4 Bizkaian.

2019ko irailean 8.157 bidaiari-sarrerak erregistratu ziren Euskal AEko apartamentu turistikoetan, %11,6ko gehikuntza aurreko urteko hil beraren aldean. Bidaiari-sarrerak %14,1 gehitu dira Gipuzkoan, %12,5 Bizkaian eta %0,8 Araban.

Gualdiak, sarrerak eta batez besteko egonaldia Euskal Aeoko apartamentu turistikoetan. 2019ko Iraila

	Gualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia	
	2019/09	m/m-12 (%)	2019/09	m/m-12 (%)	2019/09	2018/09
EUSKAL AE	29.319	7,6	8.157	11,6	3,59	3,73
Estatukoak	19.141	-0,1	5.236	8,9	3,66	3,99
Atzeritarrak	10.178	26,1	2.921	16,8	3,48	3,23
ARABA/ÁLAVA	7.185	5,4	899	0,8	7,99	7,64
Estatukoak	5.597	-4,8	796	0,5	7,03	7,42
Atzeritarrak	1.588	70,2	103	3,4	15,46	9,39
BIZKAIA	11.217	1,4	4.379	12,5	2,56	2,84
Estatukoak	6.946	-1,2	2.749	12,1	2,53	2,87
Atzeritarrak	4.271	5,9	1.629	13,2	2,62	2,80
GIPUZKOA	10.917	16,6	2.879	14,1	3,79	3,71
Estatukoak	6.598	5,4	1.690	8,1	3,90	4,00
Atzeritarrak	4.319	39,2	1.189	23,7	3,63	3,23

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Batez besteko egonaldiaren iraupena 3,59 egunekoa izan da azken irailean, 2018ko irailean izandako batez besteko 3,73 egunen azpitik. Araban, iazko 7,64 egunetatik aurtengo irailean 7,99 egunetara igo da; Bizkaian, 2,84 egunetatik 2,56 egunetara jaitsi da; eta Gipuzkoan, berriz, 2018ko iraileko 3,71 egunetatik igo da azken irailean 3,79 egunetara.

Turisten balantzea 2019ko irailean

Hotelak, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak batera, 344.399 sarrera erregistratu dira 2019ko irailean, %6,1eko gehikuntza dena aurreko urteko hil beraren aldean. Bizkaian Euskal AEko sarrera guztien %47,0 kontzentratzen dira, eta sarreraren batura %7,8 gehitu da. Gipuzkoan erkidegoko sarreraren %40,1 daude, %6,9ko gehikuntzarekin. Arabak Euskal AEko sarreraren %12,9 ditu, eta %2,2 jaitsi dira.

Gaualdiak, establezimendu turistiko hartzaileen orotarakoan, %4,2 egin dute gora. Gipuzkoan eta Bizkaian ostatu-gauak %5,1 eta %5,3 igo dira, hurrenez hurren, baina Araban %1,8 jaitsi dira.

Gaualdiak eta sarrerak Euskal Aeko hotel, landa ostatu eta apartamentuetan. 2019ko Iraila

	Gaualdiak		Sarrerak	
	2019/09	m/m-12 (%)	2019/09	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	703.203	4,2	344.399	6,1
Araba/Álava	89.923	-1,8	44.594	-2,2
Bizkaia	313.679	5,3	161.858	7,8
Gipuzkoa	299.601	5,1	137.947	6,9

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Turisten 2019ko uztaileko, abuztuko eta iraileko balantzea: Sarrerak gehitu dira %2,6 eta gaualdiak %2,8 Euskal AEn

Uztail, abuztu eta iraileko metatuan, 1.097.215 turista sartu ziren hoteletan, landa-ostatu etan eta apartamentuetan, eta horrek ekarri du %2,6ko igoera aurreko urteko aldi beraren aldean. Bizkaian sarrerak %3,8 igo dira, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta; Gipuzkoan ere %3,7 igo dira, baina Araban %4,5 jaitsi dira.

Bestalde, ostatu-gauen kopuruak %2,8ko igoera izan du Euskal AE osoan 2019ko uztailean, abuztuan eta irailean, 2018ko uztail, abuztu eta irailarekin alderatuta. Gipuzkoan %4,3 igo dira, eta Bizkaian %2,5, baina Araban %0,7 jaitsi dira.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62